



Ultzamako
Udala

Ayuntamiento
de Ultzama

ULTZAMAKO UDALA

Alkate anderea

M^a. Aránzazu Martínez Urionabarrenetxea

Zinegotziak:

M^a Purificación Etxeberria Iztueta

Nicasio Doray Bengoechea

Martín Picabea Aguirre

Lourdes Aranguren Barbería

Pedro Román Erviti Garaicoechea

Mikel Herranz Oiz

Pedro M^a. Oyarzun Baraibar

Francisco Perez Arregui

UDALAREN OSOKO BILKURAREN DEIALDIA

M^a Aranzazu Martinez Urionabarrenecheak, Ultzamako udalaren alkateak, Udal honen zinegotzia zaren aldetik, udal osoaren OHIKO bilkurara DEI EGITEN DIZU. Bilkura **2018ko EKAINAREN 7an** egingen dugu, **OSTEGUNAREKIN**, udaletxeko areto nagusian, **20:00etan**.

Era berean jakinarazten dizut, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legeak bere 78. artikulua 2. paragrafoan xedatzen duenez, Gai-zerrendako gaien agiri guztiak zinegotzien eskura izanen direla udaletxean deialdia egiten den egunetik beretik.

Etortzerik ez baduzu, etortzea eragozten dizun BIDEZKO ARRAZOA egiaztatu behar duzu, toki araubideari buruzko indarreko arauak horri dagokionez adierazten duten erantzukizunaren pean ez erortzeko.

Hau jakinarazten dizut, jakin dezazun eta behar diren ondorioak izan ditzan, Larraintzarren (Ultzamako Bailara), bi mila eta hemezortziko MAIATZAREN 28an.

M^a. Aránzazu Martínez Urionabarrenetxea
Alkate anderea



GAI-ZERRENDA

1. *Aurreko bilkuretako aktak irakurri eta onestea.*
2. *Behin betiko onestea 2017ko Ekitaldiaren Kontuen Espedientea.*
3. *Hasiera batez onestea aurrekontuaren 3/2018 aldaketaren Espedientea. Kreditu bereziak eta kreditu gehikuntza onestea.*
4. *Honako ezaugarriak dituen oihan aprobetxamendu bat besterentzeko espedientea: 5.422 PAGO LOIKETA alderdian, (27a, 28a eta 29a unadak) 284,37 m³ zur eta 3.828,68 m³ enbor txiki/egur egiten ditu eta Ultzamako Hermendiko Mortua mendian 2017an aprobetxamenduak eta hobekuntzak egiteko urteko planari (II. fasea) dagokio (Nafarroako erabilera publikoko mendien katalogoan 631. zenbakia duena). Esleitzeko erabakia.*
5. *Hasiera batez onestea hiri-jarduketako plan berezia eta LARRAINTZARko UE-010 egikaritze-unitatearen kostuak banatzeko proiektua.*
6. *Behin betiko onestea Arraitz-Orkingo (Ultzamako Bailara) U.E. 0.2. (9. poligonoko 354. lurzatia) egikaritze-unitatearen xehetasun azterlanaren espedientea.*
7. *Akatsa zuzentzea 2017ko azaroaren 9ko osoko bilkuran harturiko honako erabaki honi dagokionez: Elordi industrialdean dagoen eta katastroko 188-12 lurzatiari dagozkion 258,00 m²ko soberako lurzatia, Ultzamako Udalaren jabegokoa, besterentzeko espedientea onestea (Talleres Elordi SL enpresako nabea).*
8. *Ultzamako udal igerilekuan 2018ko udaldian ariko diren langileak kontratatzeko espedientea: 2 sorosle, mantentze- eta lorezaintza-lanetarako 2 langile, garbiketa- eta harrera-lanetarako langile bat, eta igeriketa-monitore bat. Kontratzeko erabakia.*
9. *LOZEN auzoko saneamendu sareko obrak: Toki Azpiegituren 2017-2019 aldirako Planak diruz laguntzen ez duen zatia finantzatzeko gastuaren konpromisoa onestea.*
10. *Alkatetzaren informazioak.*
11. *Exekutiboaren kontrola: Aintzat hartzea Alkatetzaren 2018ko 63. ebazpenetik 93.era.*
12. *Erreguak eta galderak.*